

TXOSTENA

Foru dekretu bati buruzko aldez aurreko kontsulta. Foru dekretu horren bidez aldatu nahi dira balio erantsiaren gaineko zergaren erregelamendua, onetsi zena martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez, eta fakturazio betebeharrak arautzen dituen erregelamendua, onetsi zena apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuaren bidez.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan xedatzen denez, erregelamenduzko lege proiektu edo aurreproiektu bat egin aurretik kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web atariaren bidez, jakiteko zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta erakunde nabarmenenek. Txostenean gai hauek jasoko dira:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauak edo arau ez direnak).

Agiri honen helburua da gai horiei erantzuna ematea eta aurreko kontsulta publikorako oinarri izatea, foru dekretu baten proiektua egin dadin balio erantsiaren gaineko zergaren erregelamendua aldatzeko (martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsia) eta fakturazio betebeharrak arautzen dituen erregelamendua ere aldatzeko (apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsia), erraztasunak eman daitezen tributuen kudeaketa sistema berri bat ezartzeko, hain zuzen ere Informazioa Berehala Emateko Sistema, abian sartu baita 2018ko urtarrilaren 1ean, balio erantsiaren gaineko zerga kudeatzeko, sistema hori aplikatzeari dagokionez espezialitate handiagoa behar duten kolektiboetarako edo jarduera sektoretarako.

Arauen Garapen eta Aholkularitza Juridikorako Zerbitzua
Servicio de Desarrollo Normativo y Asesoramiento Jurídico

Balio erantsiaren gaineko zergaren erregelamendua aldatzen da, Nafarroako Zerga Ogasunak baimendu ahal izan dezan, zenbait kasutan eta interesdunek aldez aurretik eskatuta, ez daitezela jaso zergaren erregistro liburuetaiko informazio guztiak edo aipamen guztiak, edo baldintza orokorrak ez bezalakoekin egindako fakturen laburpen-idazpenak, baldin ikusten bada jarduera sektore horretako merkataritza edo administrazio jardunbideek hala justifikatzen dutela. Orobat, laburpen-idazpenak egiteko prozedura orokorra argitzen da.

Halaber, ezartzen da ezen ondasun erabilien, artelanen, antzinako gauzen eta bildumagaien araubide berezia darabilten eragiketen kasuan, baita Bidaia agentzien araubide berezia darabilten eragiketen kasuan ere, eragiketaren zenbateko osoa jaso behar dela erregistro liburuetaikoan.

Horretaz gain, egokitze tekniko batzuk egiten dira fakturazio erregistroen igorpen elektronikorako epeetan, kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatu beharreko eragiketetan, baita erregistroko oharrak zuzentzeko komunikazioetan ere: zergapekoa akatsaz ohartzen den uneari eginen zaio erreferentzia. Era berean, zehaztu behar da ezen igorpena egiteko epearen erreferentzia gisa hartuko dela faktura behar zuen zerga aplikatu ez zen eragiketaren eguna, baita faktura egiteko epea bera ere, edo behar denean, kontabilitateko erregistroarena, zuzenketa-fakturen kasuan.

Sistema berria ezar dadila errazteko, hiruhileko likidazioaldia mantentzen da aplikazioa beren borondatez aukeratzen duten subjektu pasiboentzat, zeinek, beren aukeraren ondorioz, zerga hilabetero aitortzera igaroko baitziren.

Bidaiarientzako itzulketa prozeduraren hobekuntza azterturik, itzulketa elektronikoko baten sistema bat erabiliz hobetu ere, sistema hori nahitaezkoa izanen da 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, baina egun hori arte hornitzaileak egindako faktura ere erabiltzen ahalko da.

Gainera, zergaren erregelamenduaren aldaketa bat ere gehitzen da, hain zuzen ere entitate taldearen araubide berezia darabilten subjektu pasiboen kontrol araubideari buruz.

Fakturazio betebeharrak arautzen dituen erregelamenduaren aldaketaren helburua da Nafarroako Zerga Ogasunak bere eskumena handitzea fakturak zuzentzeko prozedurak baimentzearen arloan. Gainera, egokitze tekniko bat egiten da zuzenketa-fakturak igortzeko epeetan.

Bestalde, fakturazio araubidea eguneratzen da zerbitzu emate batzuetan, bidaia agentziek ematen dituztenean beste enpresaburu eta profesional batzuen izenean eta haien kontura, eta, hala, zerbitzu gehiago sartuko dira, non aplikatzekoa izanen baita fakturatzeko prozedura berezi hau, behin eragiketen nahitaezko kontrola bermaturik, horretarako ezarrita balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak eramateko sistema berri bat, hain zuzen ere Nafarroako Zerga Ogasunaren zerbitzu telematikoen bidez.

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 32. artikuluan dago jasota balio erantsiaren gaineko zergaren erregelamendua eta fakturazio betebeharrak arautzen dituen erregelamendua aldatzeko gaikuntza, eta hartan ezartzen da ezen balio erantsiaren gaineko zerga ordaintzeko orduan Nafarroak erabiliko dituela uneoro estatuko lurraldean indarra duten oinarrizko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berberak.

Agiri hau interesdunen eskura jartzen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Gobernu Irekiaren Atarian, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 eta 133.4 artikuluetan xedatuarekin bat (urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 30ean.

ARAUEN GARAPEN ETA AHOLKULARITZA

JURIDIKORAKO ZERBITZUKO ZUZENDARIA

Javier Zabaleta Zúñiga